

'Gaur txantxo naiz' emanaldia eskainiko du Udaberri taldeak

Euskal herriko inauteriak bilduko ditu Tolosako dantza taldeak, eta txantxo jantziaren izaerara bueltatu nahi dute; hilaren 14an izango da //2



Udaberriko kideak ekitaldia aurkezten. ITZEA URKIZU



ZIENTZIA

GAZTEENGANA HURBILTZEKO

Bizilabe ikerketa zentroen sarera batu den hirugarren eskualdea da Tolosaldea; zientzia eta teknologia ikerketa zentroen sarea sortzea da helburua, eta gazteen artean zientzia bultzatu nahi dute, bereziki emakumeen artean //5

El Salvadorren kultur proiektuak bultzatuko dituzte

Aiztondoko udalek senidetzearekin jarraitzeko konpromisoa agertu dute, eta han martxan jarritako programak lagunduko dituzte //4



El Salvadorretik etorritako herritarrek izan berri dira Zizurkilen. JON MIRANDA

Mahai ingurua, tortura osteko osaketa bidea ardatz hartuta

Egiari Zor fundazioak antolatuta, bihar izango da Atxulondo kultur etxean, 19:00etan hasita //4

Audi Q3 Sportback berria.

Autowag Tolosa
Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q3 Sportback berria : 110-169 KW (150-230 CV). CO2 isurketak (g/km): 150tik 206ra (NEDC: 123tik 174ra). Kontsumoa (l/100 km): 5,9tik 9,1ra.

Euskal Herriko inauteriak bilduko ditu Udaberrik

‘Gaur txantxo naiz’ emanaldi berezia eskainiko dute, hilaren 14an, Zerkaussian; txantxo jantziaren izaerara bueltatu nahi du dantza talde tolosarrak

Itzea Urkizu Arsuaga

Sanjoanen bueltan protagonismo handiagoa izan ohi du Udaberri dantza taldeak, eta negua sukaldeko lanak egiteko garaia izaten da eurentzat. Hori hala izanda ere, urteak daramatzate Zaldunita bezperako dantzari txikia antolatuz, eta aurten ale-txo bat gehiago utzi nahi izan dute inauterietan: *Gaur txantxo naiz* emanaldi berezia eskainiko dute, datorren otsailaren 14an, Zerkaussian.

Joan den astean aurkeztu zu-

ten egitasmoa, eta inauterien umoreari, parodiari eta satirari jarri zioten fokua. Izan ere, Euskal Herriko inauteri ospakizunen nolakotasuna taula gainera ateratzearekin batera, txantxo izaera berreskuratzeko deia ere izango da hurrengo astekoa: «Hiriko inauteria gero eta komertzialago bilakatzen ari da, baina, garai batean, herritarrek beren identitatea ezkututzen zuten inauterietan, ezarritako ordena iraultzeko; Tolosan ere hala egingen zuten, eta galtzen ari da».

Horrela, proposamen berezi

batekin helduko da dantza talde tolosarra, hilaren 14an. Euskal Herriko inauteri bereizgarriekin batera, Tolosaldeko zenbait inauteri ere bilduko dituzte *Gaur txantxo naiz* emanaldian, dantza, antzerkia, musika eta bertsoak uztartuz. Besteak beste, Lizartzako Inauterietako Dantzak, Abaltzisketako Txantxo Dantzak eta Amezketako Talai Dantzak eskainiko dituzte eta, eskualdetik aterata, taula gainean eskainiko dituzte beste inauteri koloretsu batzuk ere, hala nola: Lapurdiko Inauterietako



50 pertsona elkartuko dira oholtzan, emanaldi berezira. I. URKIZU ARSUAGA

zenbait dantza, Zuberoako Maskarada, Altsasuko Momotxorren Dantza eta Lantzeko Inauterietako Baltsa eta Zortzikoa. Dantzen pausoei doinua jartzen, Udaberri dantza taldeko fanfarea ariko da.

Gaur egun taldean ari direnekin batera, atzetik datorren belaunaldia nahiz urtetan taldean aritutako zenbait kide ere igoko

Inauteri ezagunenekin batera, fokua jarri nahi diete Lizartzako, Amezketa eta Abaltzisketakoei ere

dira oholtzara; guztira, 50 pertsonak parte hartuko dute saioan. 20:30ean hasiko da, Zerkaussian, eta sarrera doakoa izango da.

Bertsio berriak eta inauteri kontzertua

Herrikide ikastetxeko gurasoen artean sortutako The Herrikide's taldeak kontzertua eskainiko du, etzi, Jesuitinetako elizan

I. Urkizu

2017. urtean afari baten bueltan abiarazitakoak, bigarren zuzeneko emanaldia ekarriko du, datorren ostiralean, Herrikide ikastetxeko elizara. The Herrikide's taldeak beste bost inauteri kantu grabatu ditu, karaoke formatuan, eta Youtuben duten kanalean es-

kuragarri jarri, erabili nahi dituztenentzat.

Iaz atera ziren plazara, elkar-tzen lehenago hasi baziren ere: «Afarian bertan hainbat musikari geundela konturatu ginen. Gainerako gurasoen inauterietarako zerbait egiteko eskatu ziguten, eta horrela hasi ginen», azaldu du Iñaki Letamendia taldekideak.

Joan den urtean egindakoaren bidetik, aurten beste bost inauteri kantu grabatu dituzte: *Canciones bonitas*, *Pitxi-pitxi*, *Pakita la Vergaresa*, *Pello ziri-ziri* eta *Pintxana*. Diotenez, herritar gehienei ezezagunak zaizkie letra horiek, eta «jendeak kantuen hitzak ikas ditzan» egin dituzte grabaketak, Xabier Valverderen eta Joseba Mercaderren laguntzaz. Modu horretan, hainbat esparrutara hel daitekeen proiektutzat dute The Herrikide's: «Hezkuntzan oinarritzea da musika eta, gainera, kantuen hitzak euskarazkoak dira. Tolosarentzat egin dugu hau guztia, umiltasunetik».

Emanaldia 18:00etan hasiko da, ostiralean, Herrikide Jesuitinetako elizan, eta, taldekideekin batera – Martin Errondosoro, Iban Legarra, Javi Luengo, Iñaki Letamendia, Eguzki Errondosoro eta Xabi Bikuña –, hainbat gonbidatu bertaratuko dira hitzordura. Bate-tik, iragarri dute Tolosako Erraldoiek zerbait berezia eskainiko dutela, eta ikasleek ere parte hartuko dute: 6. mailako bertsolaritza ikasleak haien irakasle Jokin Go-

rostidirekin batera ariko dira; 5. mailako bi ikaslek, berriz, dantza egingo dute.

Kontzertua entzutera betaurreko, ileorde eta abarrekin bertartzera animatu nahi izan dituzte herritarrek, eta jakitera eman dute, Herrikideko ikasgela batean grabatutako kantuekin disko bat ere osatu dutela; eskuratu nahi izanez gero, The Herrikide's taldeko kideekin harremanetan jarri beharko da.



Ikastetxean bertan izango da emanaldia, etzi arratsaldean. I. URKIZU ARSUAGA



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Saltokien %87 da zerbitzua euskaraz emateko gai

Amasa-Villabonako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak herriko saltokietan euskara indartzeko lanketa egin dute

Erredakzioa Amasa-Villabona

Villabonako saltokietan euskara indartzeko lanketa garatu dute Amasa-Villabonako Udalak eta Galtzaundi elkarteak. Guztira, herriko 119 saltokik duten egoeraren azterketa egin dute eta emaitzak «nahiko positiboak» izan dira: Villabonako saltokien %87an bada zerbitzua euskaraz eman dezakeen norbait.

2018an egin zen Euskaraldia-ren lehenengo edizioaren atarian hasi zen Galtzaundi Euskara Taldea udalarekin elkarlanean Amasa-Villabonako saltokietan euskararen gaia lantzen. Guztira 111 saltoki bisitatu zituzten orduan, hizkuntza egoeraren diagnostikoa egitearekin batera, Euskaraldia aurkeztu eta saltokiak ekimenean parte hartzera animatuz.



Villabonako Udalak eta Galtzaundi egin dute lanketa. JON MIRANDA

2019an jarraipena izan du hirugarren sektorean euskara indartzeko egitasmoak. Galtzaundiko teknikariek banan bana pasa dituzte herriko saltokiak, «beste hainbat herritako esperientziek erakusten baitute banan banako bisita hauek emaitza positiboak ekartzen dituztela».

Hala, lehendabizi, egoeraren diagnostikoa egin dute 119 saltokitako egoera kontuan hartuta, eta ondorioztatu dute, Villabonako saltokietako arduradunen %70a dela euskalduna. Langileei erreparatuz gero, ordea, egoera are euskaldunagoa da. Villabonako saltokietako 263 langiletik

%76 da euskalduna eta beste %11 euskara ulertzeko gai da. Beraz, egoera Tolosakoaren parekoa da: saltokietako langileen %87k ulertzen du euskara, eta %87etan bada zerbitzua euskaraz eman dezakeen norbait. Villabonako establezimenduen euskara gaitasuna Villabonako eta Tolosaldeko euskara-ezagutza datuekin alderatuta, batez bestekotik gora dago, billabonatarren %80k eta Tolosaldeko biztanleen %84k ulertzen baitute euskara.

LAGUNTZA ETA ZERBITZU GIDA

Bestetik, Amasa-Villabonako Udalak, Euskara Zerbitzuaren

bitartez bideratzen dituen laguntza, zerbitzu eta material eskaintzen berri emateko, herriko errealitatera egokitutako gida osatu eta aurkeztu du saltoki guztietan. Honekin batera, saltokiak euskararen alde eman ditzaketan pausoen gomendio zerrenda ere jarri zaie eskura. Euskara zerbitzuko eskaintzaren (karteldegia, euskalduntzea, itzulpenak, arlokako hiztegiak...) berri eman ondoren, %30ek eskaeraren bat egin dute beren saltokian euskararen presentzia hobetzeko.

«ERABILGARRIA»

Egindako lanaren balantzea egiteko, saltokietako langileei eta arduradunei zuzenean galdetu zaie eskaintako aukeren eta zerbitzuen inguruan. %95ari erabilgarria edo lagungarria izan zaie zerbitzua eta eskertu egin dute aurrez aurreko presentzia eta laguntza. Merkatarien motibazioari dagokienez, oro har, merkataria «oso aktibo» sentitu dira egitasmoarekin.

Landa lana burutzerako orduan, merkatariek egindako harrera eta eskaintako erraztasunak eskertzeak eta nabarmentzeak izan direla azaldu dute Amasa-Villabonako Udaletik. «Saltoki batzuk aldagetakarako erakutsi duten nahia eta, ondorioz, ematen ari diren pausoak ere nabarmendu beharrekoak dira».

Erredakzioa

Tolosaldea Sahararekin elkartak aurten ere urte hasierarekin bat eginez elkartasun kanpaina jarri zuen abian errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren sahararrei elikagaiak eta materiala bidaltzeko helburuarekin. Bada, aurtengo kanpaina bukatu da, eta 4.000 kilo bildu dituztela azaldu dute elkarteko ordezkariak, pasa den urtean baino 1.000 kilo gutxiago. Tolosaldea Sahararekin elkartak era batera edo bestera lagundu dutenei eskerrak eman dizkie.

Hain justu, asteburuan kargatu dute Tolosaldean jasotako guztia kamioiean, eta gainerako eskualde guztietan jasotakoarekin batera, otsailaren 29an jarriko da euskal karabana Aljerian kokatutako kanpalekuetara bidean. Bi egun lehenago Sahara-ko Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zela kontuan hartuta, beste urte batez, maratoia burutuko da kanpalekuetan.

Tolosaldea Sahararekin elkartak 4.000 kilo jaso ditu

Asteburuan kargatu dute Tolosaldean jasotako guztia kamioian, eta bi aste barru jarriko da euskal karabana, errefuxiatuen kanpalekuetarako bidean



Iragan asteburuan sartu zuten azken hilabeteen jasotako elikagaiak eta materiala kamioian. LEYRE CARRASCO



Proiektu kultural eta artistikoak bultzatuko dituzte El Salvadorren

Zizurkilen izan dira Walter Claros El Salvadorreko Jocoaitiqueko alkate ohia eta Nory Hernandez Morazan departamenduko gazteen kontseilu nazionalako ordezkaria

Jon Miranda Zizurkil

1980ko hamarkadan El Salvadorreko gerra zibilak eragindako errepresiotik ihesi, Honduras hegoaldean, Colomnecaguan babestea erabaki zuten 8.000 herritar inguruk. Bederatzi urte iraun zuten erbestealdiak, harik eta 1989an euren jatorrira itzultzea erabaki zuten arte. Ez ziren edonola itzuli, ordea: erbestean bizitako elkartasun eta berdintasun esperientzia hartu zuten oinarri El Salvadorren etorkizuna eraikitzeko, hutsetik abiatuta. 30 urte beranduago Segundo Montes komunitatea toki segurua eta etorkizunez betetakoa da. Horrela nabarmendu dute Clarosek eta Hernandezek Zizurkilen.

1989an Ignacio Ellacuriarekin batera eraildako Segundo Montes jesuitaren izena hartu zuten Morazan departamenduan, Meanguera eta Jocoaitique udalerrien artean lekutu zen komunitateak. Hain zuzen, orain, Jocoaitique udalerriak senidetze hitzarmena sinatu du El Salvador bertako Cusclatan departamenduan kokatutako Suchitoto udalerriarekin. Bietan gobernatzen du FMLNk.

Jocoaitiqueko alkate izandakoa da Claros eta gaur egun gazte politiken sustatzaile dabil. Iazko maiatzean ere izan zen Euskal Herrian, Suchitotoko alkate Pedrina Riverarekin batera. El Sal-



Aiztondoko herrietako udal ordezkariak, El Salvadorretik etorritakoekin. J.M.

vadorreko bi udalerrien artean abuztuan gauzatu zen senidetzearekin ohitura, kultura eta historia trukea egin nahi dute, bi herriak baitira 80ko hamarkadako gatazka armatuaren ikono. Memoria historikoa konpartitzen dute.

Zauriak ixteko aukera bezala ikusten dute kultura. Mugimendu handia dago bi herrietan eta ugariak dira antzerki eta musika taldeak. Borrokalariek eta ekin-tzaileak dira hango herritarrek, bereziki gazteak. Horietako bat da Nory Hernandez, egun, Morazan departamenduko gazteen kontseilu nazionalako ordezkaria. Aiztondo bailarako udal ordezkariak Hernandezen ahotik entzun dituzte inguru hartan gazteek gauzatzen dituzten proiektu kultural eta artistikoak.

Bertatik bertara hango erreali-

tatea ezagutzeko aukera izan zuten Euskal Herriko lau gazte iazko udan. Gaztematika Gipuzkoako Foru Aldundiko programaren bitartez komunikazio eta arkitektura ikasleek Segundo Montes komunitatean hainbat proiektu garatu ahal izan zituzten. Euren esperientziaren berri eman dute Aiztondoko udal ordezkarien aurrean.

Zizurkil, Aduna, Asteasu eta Amasa-Villabonako udal ordezkariak duela 27 urte abiatutako senidetzearekin jarraitzeko konpromisoa agertu dute eta herri-tarrekin batera hainbat ekimen antolatuko dituzte, Suchitoto eta Jocoaitiqueko senidetzearen bitartez egingo diren programak diruz laguntzeko. Esker gisa, Hernandezek eta Clarosek opariak banatu dituzte Aiztondoko udal ordezkarien artean.

Feminismotik aztertuko dute tortura osteko osaketa bidea

Joxe Arregi 1981eko otsailaren 13an hil zen eragin zizkioten torturen ondorioz; Data gogoratuz, bihar mahai ingurua eta igandean ekitaldiak egingo dira

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilen, Joxe Arregi zenaren jaioterrian antolatu ditu ekitaldiak Egiari Zor fundazioak, «jasandako mina ez errepikatzeko, gertatutakoa ezagutzea baita berme onena». Kriminologiaren Euskal Institutuak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak 2017ko abenduan aurkeztu zuten EAEko torturari buruzko txostena. Bertan jasotzen den argazkia «beldurgarria» da Egiari Zor fundazioaren ustez: azken 50 urteetan 3.415 pertsonen salatutako gutxienez 4.113 tortura kasu frogatutzat jotzen dira. Kasuen %15,8 emakumeei dagozkie.

Aurten torturak jasandako pertsonen osaketa prozesuan eta esperientzia traumatiko horri aurre egiteko mekanismoetan jarri nahi du arreta fundazioak eta mahai ingurua antolatu du, bihar, 19:00etan Atxulondo kultur etxean. Hain zuzen, genero ikuspegitik landu nahi dute gaia, «ezin ulertu baitaitezke gatazkaren testuinguruan emakumeek jasaten dituzten indarkeria forma anitzak, tortura tarteko, horiek posi-

ble egin dituzten genero arrazoiei erreparatu gabe». Nekane Txapartegi, Olatz Dañoibeitia eta Miren Azkarate, tortura pairatu duten hiru emakumek hartuko dute parte mahai inguruan eta feminisमतik aztertuko dute nola egin dakiekeen aurre tortura bezalako giza eskubideen urraketa larri bateg dakartzan ondorioei.

Egiari Zor fundazioak azpimarratu duenez, «izugarria baldin bada ere», beharrezkoa da egia jakitea, «gatazkaren testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketa orok izan behar baitu aitor-tua eta erreparatua». Kriminologiaren Euskal Institutuak 2017an argitaratutako txostena bost hamarkada baino gehiagoan polizia etxeetan gertatutako krimen sistematikoaren testigantza argia dela uste du fundazioak eta, gainera, «oraindik inork ez du bere gain inolako ardurarik hartu».

Bestalde, igandean, Joxe Arregi gogoratuko dute Zizurkilen. 09:00etan Haizetsura ibilaldia abiatuko da eta eguerdian bere izena daraman plazan ekitaldia egingo dute. Ondoren, bazkaria izango da Urkamendi elkartearen.

Lehen sorospen ikastaroa egingo dute Alkizan gaur

ALKIZA // 18:00etan egingo dute kultur etxean eta oinarritzko lehen sorospen ikastaroarekin batera, desfibriladorea erabiltzen ikasteko saioa egingo dute. Hur Lertxundi, Donostia Ospitaleko larrialdietako medikuaren eskutik izango da saioa. Izen emateko, kultura@alkiza.eus helbidera edota 688 604 466 telefonora jo beharko da. Ikastaroa doakoa izango da.

Jai batzordearen bilera egingo dute, bihar, udaletxean

AMASA-VILLABONA // Osoko bilkuren aretoan izango da, bihar, 18:30ean. Hauek dira jorratuko diren gaiak: 2020ko Santio jaiaren behin-behineko egitarauaren azterketa; 2020ko Santio jaietan sar daitezkeen ekintza berriak; Txupinazoa jaurtitzeko proposamenen azterketa eta kontzerturako proposamenak. Bertara azaltzeko deia luzatu diete interesa dutenei.

GOIKOETXEA
sagardotegia

Sagardo Naturala

Erreserbak:
609 714 203 • 943 68 21 75

Elbarrena Kalea, 9 | 20490 - Lizartza
Aroztegi baserria, 9 | Tel.: 609 71 42 03

Asteartetik larunbatera afariak
Larunbat eta igandetan bazkariak



Atzo sinatu zuten hitzarmena Tolosaldea Garatzenek eta Elhuyarrek; irudian, Garbiñe Mendizabal, Jon Abril, Iker Urruzola eta Aitziber Lasa. E.MAIZ

Aisialdi ekimena, gazteei zientzia eta teknologia gerturatzeko

Tolosaldea Bizilabe ikerketa zentroen sarera gehitu da, eta Elhuyarrek elkarlanean egingo du proiektua Tolosaldea Garatzenek; batez ere emakumei begira egingo dute lan

Eneritz Maiz Etxarri

Tolosaldera Bizilabe proiektua iritsi dela jakinarazi dute, gazteen artean zientzia eta teknologia bultzatzeko. Tolosaldea Garatzen garapen agentziako Iker Urruzola Aizpurua lehendakariak eta Elhuyarreko Jon Abril Olaetxea zuzendariak sinatu dute hitzarmena, eta proiektua elkarlanean aterako dute aurrera.

Zientzia eta teknologiaren inguruan, «gazteek interesa eta jarrerara positiboa duten arren, gutxieneko batek baino ez du hautatzen arlo hauetako ikasketak egitea», azpimarratu du Urruzola garapen agentziako lehendakariak, eta nabarmendu du: «Estatu mailako unibertsitateko ikasleen %53,3a emakumezkoa den arren, ingeniartza eta arkitektura bezalako karreretan %26,4ra jaisten da kopurua».

Europak zientzialari eta teknologo asko beharko dituela aurreikusten da epe laburrean, eta profesional horien faltak «ondorio negatiboak» ekar ditzakeela garapen ekonomikoan adierazi du Urruzolak.

Guzti hori kontuan hartuta, Tolosaldea Garatzenek duen Plan Estrategikoaren barruan sinatu dute hitzarmena, hau da,

Formazioa eta Talentua Barneratzea eta Sustatzea lan ildoan.

Elhuyarreko zuzendari nagusia «eskertuta» agertu da Tolosaldea Garatzenekin. Elhuyarreko 50 urteko ibilbidea du euskaraz zientzia hedatzen eta zabaltzen: «Modu oso ezberdinetan egin dugu lan; dibulgazio lanak ezagutzera emanez, hizkuntza teknologien bidez, eta beti ere, euskara erdigunean jarrita. Tolosaldeak horretarako baldintza ezin hobeak ditu», esan du Abrilek. Eta «elkarlan hau abian jartzea berri pozgarria da guretzat». Elhuyarren balio nagusia elkarlana dela ekarri du gogora: «Guretzat ezinbestekoa da».

«Esango nuke eskualdea eta

lurraldea kohesionatzeko proiektua dela, eta gazteei begirakoa», gaineratu du. Era berean, «familiek, hezkuntza komunitateak, enpresek, merkatariek... zeresana izango dute proiektu honetan. Baina, batez ere, protagonista gazteak izatea nahi dugu, eta gazte horien artean nabarmenki emakumei begira ere jarriko gara aukera berdintasuna erreala izan dadin».

Gaur gaurkoz, datuek erakusten dute, oraindik, zientziaren arloan, «arrakala izugarri handia» dela. Horren atzetik, «uste okerrak eta estereotipoak» daukela dio, eta «emakumeek beraiei ibilbide profesionalerako erreferentzialtasun falta handia

dute zientzia hautatzeko». Aisialditik eta euskaraz egiteak ere beste balio bat ematen diola argitu du Abrilek. «Hori da, hain justu, proiektu honek duen beste aberastasunetako bat. Ibilbide polita eta oparoa hasiko da, eta gainera Tolosaldera egokitutakoa, bertako errealtaterara, eta bere herrien aniztasuna aintzat hartuko duena».

BIZIPENAK SORTZEKO GUNEA

Bizilabe proiektua zer den Aitziber Lasa Iglesias, Elhuyarreko Steam-Zientzia, teknologia, ingeniartza, artea eta matematikak- Hezkuntzako arduradunak azaldu du: «Euskal Herria mailan gazteentzako zientzia eta

teknologian nolabaiteko ikerketa zentroen sare bat sortzea da». Ekimena dagoeneko beste eskualde batzuetan hasia dago, eta Tolosaldea izango da hirugarren eskualde nagusia.

Bizipenetan jarri du arreta Lasak: «Gazteengan, euren etorkizunera begirako profesioetarako erabat eragiten dute bizipenek. Ikerketek gero eta garbiago erakusten dute zientzia eta teknologia arloetan». Horregatik, gazteentzat zientzia bizipenak sortu nahi dituzte, komunitate osoaren inplikazioarekin. Eta lehenengo, eskualdeko gazteen artean diagnostiko bat egingo dute: «Ikusteko bai beraiek nola ikusten duten beraiei burua, eta etorkizunera begira nola irudikatzen duten, bai profesionalki zein pertsonalki. Eta inguruan zein lan mota egiten den ere galdetuko zaie». Honekin abiapuntua bilatuko dute denek komunean izateko.

Bigarren puntuan saretzea jarri dute. «Eskualde polita da, askotarikoa eta ezberdina. Herri askok parte hartzen dute, eta hemen bai ala bai, gazteak eta mundu profesionala elkartzeko lankidetzat bilatuko da». Zentzu horretan eredia bilatu beharko dutela dio Lasak: «Zentro fisiko bat, bi, lau... edo errotazioa. Nolabait, sinatu den hitzarmenari esker, Bizilabe eredia bilatuko da Tolosalderako». Asteazkenean zehar eta aisialdian gazteak zientzia egitera joateko leku bat bilatuko dute. Horren barruan, «ekosistema sortu nahi dugu, zientziaren inguruko festak antolatzeke eta zientziaren inguruko bizipenak komunitatean eraikitzeke».

Eta erreferenteen ikuspegitik ere garrantzitsua izango dela aipatu dute. «Eskualdeko Steam emakume profesionalak identifikatu beharko ditugu gure gazteekin egoteko. Ez da erronka erraza, eta honelako gaietan ez da erraza neskek beraientzako dela sentitzea. Horretan bidea egin beharko da», esan du.

TALLER DE JOYERÍA

UGARTE

BITXITEGI TAILERRA

ondo pasa inauteriak Konponketak . Eraldaketak .
Urre, zilar eta platinoan diseinuak .
Engastak . Laser soldadura . Grabaketak .
Erloju konponketak .
Diseinu pertsonalizatuak.

Foruen Etorbidea 20400 TOLOSA



Mikel Lasa
ITURGINTZA

BIDANIA - GOIATZ
672 798 852
mikellasaiturgintza@gmail.com

- Iturgintza
- Gasa
- Berokuntza
- Energia Berriagarriak

Pasa den asteko eguraldi lehor eta beroa medio airearen kutsadurak gora egin zuen, besteak beste, Tolosan; «gure egunerokoak kutsakorrek direla» hausnartu beharraz hitz egin du Eguzkik

«Kutsadura egon badago»

I.G.L. - R.C.G. Tolosa

Pasa den otsailaren 3an airearen kutsadura neurketek kopuru altuak eman zituen Euskal Herriko hainbat tokitan, baita Tolosan bertan ere. Bero dezente egin zuen, ia haizerik ez zuen egin, eta horrek sortu zuen neurketetan gorako joera nabarmenak egotea. Airearen kalitatea neurtzeko dauden gailuek PM 10 partikulak neurtzen dituzte eta horien arabera, Gipuzkoan maila altuenak Donostia inguruan eman ziren; bi neurgailu daude bertan eta bietan 100dik gora mikrogramo metro kubiko-ko neurtu ziren. Tolosan ere kopurua nahiko altua izan zen; 89 mikrogramo metro kubikoko neurtu ziren.

Eguzki Talde Ekologistako Garikoitz Plazaolak esan duenez, 71tik 100era bitarteko mikrogramo metro kubikoko neurtzen badira aire kalitatea txarra da eta 101etik gora oso txarra. Donostian oso txar horretan egon ziren, beraz, pasa den astean, eta Tolosan berriz, maila ez zen horretaraino igo, «baina bertako neurgailuak momentu batean 89ren bueltan ibili ziren. Momentu batean arnasteko aire txarra izan genuen, beraz».

Kopurua ez zen egun guztian zehar mantendu, gerora 70era jaitsi baitzen, «baina kopuru hori ez da egokia hala ere, horren larria ez den arren». Plazaolak esan du, era berean, emandako datuak deigarriak direla 24 orduko batez bestekoa egitera-koan eman direlako, «ez une ze-



Airearen kutsadura neurtzeko gailua, Tolosan. I.T.

hatz batean neurtzean eman delako bakarrik».

Euskal Herriko hainbat hiri eta herritan egin diren neurketek, beraz, airea nahiko kutsatua dagoela erakutsi dute, arnasteko txarra den airea kontzentratu dela, alegia. Egungo legediak dio pertsonen osasuna babesteko muga 50 mikrogramoak metro kubikoko 24 ordutan zehar ematea eta urteko 35 aldi baino gehiagotan gainditzean neurriak hartu behar direla.

DATUEZ HARAGO

Neurketek emandako datuez harago, bestelako hausnarketa bat egin du Eguzkiko kideak: «Gure egunerokoak, lanean, enpresetan... kutsakorrek direla esan nahi du horrek, uste duguna baino gehiago. Kutsadura hor dago, sortzen dugu, baina

zorionez eguraldiaren arabera zabaldu egiten da eta eraginak ez dira hain zuzenak. Baina kutsadura egon badago».

PM 10 PARTIKULAK

Plazaolak PM 10 partikulen neurgailuak zer diren ere azaldu du: «PM 10 neurgailuak partikula txikiak neurtzen ditu, hau da, milimetro bat baino 100 aldiz txikiagoak diren partikulak. Gure begiek ezin dituzte partikula horiek ikusi, noski, baina horrek ez du esan nahi kaltegarriak ez direnik». Porlanaren hautsa, polena, errautsa, partikula metalikoak... neurtzen dituzte hortaz, neurgailu horiek. Partikula horien sortzaileak nagusiki erreketak ezegokien ondorio izaten dira; autoen motorren erreketak ezegokiak, esaterako.

GUTUNA

Greba orokorraren biharamuna

Urtarrilaren 30eko greba orokorra iragarri genuen, azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari mugak jartzeko eta alternatibak badaudela oihukatzeke.

Hasieratik greba orokor honek oztopoak jartzen saiatu ziren bai patronala eta baita erakundeak, hainbat sindikatu eta komunikabide ere. Patronala badakigu noren mesedetan dagoen, baina erakundeei herritarren mesedetan aritzea exijitu behar diegu. Grebara ateratzeko arrazoiak soberan ditugu. Aldarrikapen taulako neurri asko gauzagarriak dira. Borondate politikoa da behar dena.

Datuak kezkarriak dira: soldaten batez bestekoa %8 jaitsi da azken hamarkadan, 100.000 herritarretik gora muturreko pobrezian daude (597 eurotik behera), emakumeok soldata eta pentsio arrakala pairatzen dugu, behin behinekoa da... Euskal oasia?

30 puntuko aldarrikapenekin irten ginen kalera: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, 1.200 euro-

ko gutxieneko soldata, babes soziala, arrakalarekin amaitzeko neurriak eta abar.

Greba orokor honetara egoera sozial kaxkarrarekin iritsi gara, baina aktibazio sozial handi batekin. Honi esker, aurreko greba orokorretan ez bezala, oraingoan Tolosaldeko herri askotan greba batzordeak sortu dira.

Greba orokorraren bezperatan jarraipena zabala izango zela ikusten hasiak ginen. Eta urtarriaren 30ean Tolosaldeko industria enpresa nagusienak, ikastetxeak, udaletxeak, saltoki handiak eta industriagune gehienak hutsik egoteaz gain, herrietako merkataria eta ostalariek ere grebarekin bat egin zutela agerian geratu zen.

Langile klaseak eman duen erantzuna txalotzekoa izan da. Mobilizazioetan kaleak betetzera iritsi ginen. Pentsionistak, gazteak, feministak, langileak... Bakoitza bere aldetik baino, elkarrekin indartsuagoak garelako erakutsi dugu.

Gure aldarrikapenak agendaren erdigunean jartzea lortu dugu. Lan, pentsio eta bizitza duinak guztiontzat!

Haizea Mendia

Tolosaldeko LAB sindikatua



Greba orokorraren egunean, arratsaldean, manifestazioa egin zuten Tolosan. E.M.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Migel Soroa Oroimenezkoa txapelketaren finalak, erabakita

Otsailaren 23an, Zaldunita egunez, Tolosako Beotibarren jokatuko dira, hiru mailatan: jubenilak, promesak eta eliteak.

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Pasa den larunbatean, VIII. Ogi Berri-Migel Soroa Oroimenezkoa txapelketako finalerdien bigarren jardunaldia jokatu zen, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdiko lehen partida, jubenil mailakoa izan zen. Eñaut eta Eneko Lizeagak, 22 eta 11 irabazi zieten Alonsori eta Ugartemen-diari. Bikote irabazleko aurrelaria izan zen partidako jokalaria onena. 13 tanto egin zituen Lizeagak, horietatik bost sakez. Oraindik kadetea den arren, maila bikaina erakusten ari da. Gainerako pilotariek tanto asko galdu zituzten.

Bigarren finalerdia, elite mailakoa izan zen. Labaka-Telletxea bikoteak 22 eta 17 irabazi zion, Murua-Elizegi bikoteari. Partida gogorra izan zen, 500 pilotakadakoa. Bi aurrelariak nabarmendu ziren, kalitate handiko tantoak egin zituztelarik. Lehen zatian, oreka handia mantendu zen markagailuan, baina bigarrenean, gehiago nagusitu ziren Labaka eta Telletxea.

Promesetan, Senarrek eta Morgaetxeberriak 22 eta 10 irabazi zieten Olaetxeari eta Garmendiari. Txukun hasi ziren galtzaileak, batez ere, Olaetxea aurrelariaren lanari esker; 9 eta 4 aurreratzea lortu zuten. Hortik aurrera, ordea, irabazleek jokoa aldatu, eta aurkarien atzelaria zigortzea erabaki zuten, baita asmatu ere. Azkenean, Garmendia lazkaotarra kamuts aritu zen, eta guztira, 10 pilota galdu zituen.

Txapelketako finalak, hilaren 23an jokatuko dira, 16:30etik aurrera. Jubeniletan, Hormaetxek eta Sudupek, Lizeaga anaiei aurka neurtuko dituzte indarrak. Promesetan, berriz, Alberdik eta Apezetxeak, Senarren eta Morgaetxebarriren aurka jokatu-ko dute. Azkenik, Zubizarreta-Uriondo eta Labaka-Telletxea bikoteak ariko dira elite mailan. Bertaratu ezin dutenek, www.pilotarentxokoa.com webgunean ikusi ahal izango dituzte finalak, zuzenean.

Amaitu arte borrokan, helburua lortzeko esperantzarekin

Anoeta FT-ko areto futboleko nesken taldea, Gipuzkoako Ligan ari da lehiatzen, senior mailan. Hasiera ona izan arren, bolada txarrean daude, baina ez zaie ilusiorik falta.

J. Artutxa Dorronsoro Anoeta

«Gustura» ekin zioten 2019-2020 denboraldiari Anoeta FT-ko neskek. 10 jokalarik osatzen dute taldea. «Gogotsu hasi ginen, ondo jokatzeko, eta hori, emaitzetan atzematen zen. Azken hilabetean, ordea, beherakada txiki bat izan dugu. Gabonetatik bueltan, lesioak, lana eta ikasketak tarteko, entrenamenduetara eta partidetara jendez justu joan izan gara, eta horrek eragina izan du emaitzetan», dio Naroa Ane Lasa jokalaria irurarrak. Azken lau partidetatik hiru galdu dituzte. «Hemendik aurrera, badirudi ez dugula arazorik izango, berrito lehengo dinamikara itzultzeko».

Anoeta FT-k nesken taldea atera zuenetik sei urte bete dira, eta lehen urtetik ari da Lasa. «Jokatzen ari garenontzat ez da lehen denboraldia. Beraz, esperientzia apur bat ere badugu. Oso ondo ezagutzen dugu elkar, eta jokatzeko moduan nabaritzen da hori. Jon Urretabizkaiek prestatzen ditu. «Berarentzat ez da lehen urtea, eta badu meritua».

«Denboraldi hasieran ez genion helbururik jarri gure buruari. Ahalik eta ondoen jokatzeko, eta gustura aritzea ziren asmo nagusienak», aipatzen du Lasak. Orain, ordea, Federaziotik ohar-tarazi die sailkapeneko lehen lau taldeek titulua irabazteko azken fasea jokatu dutela. «Hori lortu nahi dugu». Oraingoz, seiga-



Anoeta FT klubeko nesken taldea, Abraham Olano kiroldegiko kantxan. ATARIA

rrenak dira sailkapenean, 13 punturekin, eta laugarren postua hiru puntura dute. Hala ere, gainerakoek baino partida bat gutxiago jokatu dute, azken jardunaldian Eguzki taldearen aurka jokatu beharrekoa atzeratu egin baitzen. Ordizia eta Sanpedrotarra talde indartsuen atzetik, bost talde daude zazpi punturen barruan, eta horiek izango dira hirugarren eta laugarren postuetarako lehian ibiliko direnak. «Aukera polita dugula ikusita, ahalik eta partida gehien irabaztera joango gara».

Arestian aipatu bezala, ez dira bolada onena igarotzen ari, baina horri buelta ematen ahaleginduko dira, asteburu honetako partidatik hasita. Eskoriatza bos-

garren sailkatuaren aurka jokatu dute etxean, Abraham Olano Kiroldegian. «Han galdu egin genuen, eta arantza bat geratu zitzaigun. Ea hiru puntuak etxean geratzen diren, partida oso garrantzitsua izango baita».

TALDEKIDEAK

Eider Arruabarrena. Atezaina.
Naroa Ane Lasa. Atzelaria.
Igone Gutierrez. Atzelaria.
Nahikari Telleria. Atzelaria.
Ane Peña. Atzelaria.
June Aramendi. Hegalekoa.
Eider Aramendi. Hegalekoa.
Ane Caverro. Pibota.
Ane Arregi. Pibota.
Miren Izeta. Pibota.
Jon Urretabizkaia. Prestatzailea.

Iraitz Arrospide zortzigarren, eta Unai Arroyo hamargarren

ATLETISMOA // Uliako Gimnastika klubak antolatuta, 10 kilometroko lasterketa jokatu zen, igandean, Donostian. Iraitz Arrospide billabonatarra zortzigarren izan zen, 29:38ko denborarekin, eta bera izan zen lehen gipuzkoarra. Unai Arroyo tolosarrak ere parte hartu zuen, hamargarren postuan sailkatuz (30:34).

Eskualdeko txirrindulariak, emaitza onak lortzen

TXIRRINDULARITZA // Pasa den asteburuan, Anadiako Nazioarteko proba jokatu zen, bertako belodromoan. Eukene Larrarte zazpigarren izan zen scratchean; Naia Amondarain, berriz, hamaikagarren. Bestetik, Unai Iribar, L'Essor Basque itzulian aritu da lehiatzen. Mauleko azken etapan, bosgarren izan zen.

Jarrai dezagun lanean



Aulkitik

Naiara Alvarez

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Azkenean iritsi zen hainbeste itxarondako larunbata. Ohiturari jarraituz, Iurre tabernan elkartu ginen, partidaren aurretik kafe bat hartzeko. Logroño B taldearen aurka jokatzeko genuen. Nahiz eta sailkapenean gure atzetik dagoen taldea izan, aurkari gogor eta zail bat espero genuen, fitxaketa berriak egin dituzte-eta. Hau jakinik, gogor entrenatu genuen astean zehar, asteburura ahalik eta ondoen iristeko.

Talde bisitaria eroso sentitu zen lehen zatian, nahiz eta ate aurrean ez asmatu. Husnako berdinketarekin joan ginen atsedendira. Bigarren zatian, rol aldaketa bat izan zen. Galdu ezin genuen partida zela jakinda, dena eman behar genuen. Beraz, aukerak sortu genituen, eta amaierara arte borrokatu genuen. Azkenean, baina berdinketarekin konformatu behar izan genuen, eta puntu bana lortu genuen bi taldeek.

Nahiz eta jaitsiera postuetatik ateratzeko nahikoa puntu ez lortu, lanean jarraituko dugu, eta ziur nago emaitza hobeak iritsiko direla. Goazen neskak!

Federazio Koparako sailkapena lortu du Lara Arruabarrenak

TENISA // Espainiako selekzioak, 3-1 irabazi zion Japoniari, asteburuan jokatuako kanporaketan. Tolosarrak jokoa ezer ez zuen partida jokatu zuen, Aliona Bolsovaekin bikotea osatuz. 6-2 eta 6-3 galdu zuten japoniarren aurka. Hala ere, Arruabarrena, apirilean Budapesten jokatu-ko den azken faserako sailkatu da.



ASTEAZKENA, 2020KO OTSAILAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEAZKENA 12

AGENDA

Deialdiak

Alkiza. Oinarrizko Lehen Sorospen ikastaroa eta desfibriladorea erabiltzen ikasteko saioa, Hur Lertxundi, Donostiako Ospitaleko larrialdietako medikuaren eskutik. Kultur etxean, 18:00etan.

Berastegi. Guraso eskola, udaletxe-ko erabilera anitzeko gelan, 18:00etan.

Ibarra. Kilometroak 2021 festa antolatzen bilerak, kultur etxean, 19:00etan. Uzturpe ikastolari dagokio 2021ean kilometroak antolatzea. Kilometroak eredu berria zertan datzan azaltzeko batzar informatiboa izango da.

Irura. Haur txikien aho hortzen osasunari buruzko hitzaldia, Alaitz Amondarain odontologoarekin, haurreskolan, 17:00etan.

Irura. Irurako Kaldereroetarako entseguak, Loatzo musika eskolan, 18:30ean. Bakoitzak bere zartagina eta mailua eraman behar du.

Tolosa. Zahartze osasungarriko estrategia soziosanitarioak jardunaldia antolatu du Asuncion klinikak eta Assumptio Proinova fundazioak. Topic-en izango da, 09:00etan. Bi proposamen praktiko aztertuko dituzte: Mugi Tolosa eta Macrosad belaunaldien arteko Espainiako lehen zentroa. Rafael Bengoa Osasun sailburu ohia eta Martin Lessende doktorea hizlari ariko dira.

Tolosa. Meditazio hitzaldi zikloa Claudino Cid-ek zuzenduta. Teoria eta praktika uztartzen dituzten doktoreak. Kultur etxean, 20:15ean.

Erakusketak

Tolosa. Burattinien Mundu Miresgarria, Topic zentroan.

Tolosa. La importancia de estar erakusketa, Gko galerian.

Tolosa. Elloria - Tach Pollard, Gko galerian. Gama art toy kolektiboaren lanak daude ikusgai.

Tolosa. Xabier Obesoren Barruko argiaren bila, Aranburu jaregian. Bisita gidatuak larunbatero, 18:30ean.

Tolosa. Matxin Labaien azken lanak erakusketa, Aranburun.

Tolosa. Frame Ink. Mikel Elorza Agirre. 3 tabernan.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Lotsagabe
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Denbora da poligrafo bakarra
22:30. Ajoarrieroa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, eguneko berriak, Tolosaldea Garatzenen tarteak, administrazioaren atala Tolosaldea LHko ikasleekin, Joseba Landabartzelonatik eta eskualdeko musikari batek proposatutako musika proposamena.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza, Imanol Artola Felix-ek gidatuta.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giroak hobera egingo du. Goizean oraindik zaparrada batzuk izango dira, baina eguerditik aurrera atertu eta ostartetxo batzuk zabalduko dira. Maximoak pixka bat jaitsi eta ez dira 11-13 gradutik pasako.



Bihar. Erabat altxa ezinik ibiliko da eguraldia. Goizean nahiko giroa argia izango da, eta arratsaldeko lehen orduetan hodeitza areagotu eta euri zaparrada batzuk izango ditugu. Tenperatura 16-18 gradura igoko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Xareak 100 urte egin dituela eta antolatutako ekitaldien artean aldizkaria argitaratu dute, kirolak herrian duen pisua islatzeko.

Mendeurrena gogoan

Erredakzioa Irura

Urtarrilean ikusi zuen argia *Arkupetik trinketera 1919-2019* aldizkariak eta orain herrian banatzen ari dira. Irurako etxe guztietara zabalduko dute, taberna, denda eta elkarteetan eskuragarri izango da eta Tolosaldeko eta Gipuzkoako liburutegietan ere irakurri ahal izango da.

Xareak 100 urte Iruran izenburupean mendeurrena gogoratzen abenduan hasitako ekitaldien barruan argitaratu dute aldizkaria, eta xarearen historia, Munduko Txapelketa, Jexuxmari Arsuaga xaregileari elkarrizketa, Argentinara bidaiatu zuten pilotariei buruzkoak, xare eskola edota xarearekin lotutako pertsonaiei eginiko elkarrizketak jasotzen ditu, besteak beste.



Joxi Lopetegui xarelari irurarrari eginiko elkarrizketa ere irakur daiteke. ATARIA

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

**Argazkia bi egun lehenago
ekarri mesedez**

SUA

LEGORRETA HERRI ANTZOKIAN

OTSAILAK 14, OSTIRALA

23:00

Antolatzailea:



Legorreta Herri Antzokia

@Legorretantzoki

Legorreta Herri Antzokia

Sarrerak aurre 6€

bertan 8€

Kioskoan saigai

Laguntzaileak:

www.legorreta.eus



RODEO

